

EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
ARTEKO BERDINTASUNERAKO II.  
PLANA

2007-2009

ELORRIOKO UDALA



1. Aurkezpena.....	3
2. Erakunde- eta lege-esparrua.....	4
3. Kontzeptu-esparrua.....	8
4. II. Planaren ezaugarriak.....	9
5. Plana egiteko erabili den metodologia.....	10
6. Berdintasunerako egiturak eta baliabideak.....	12
6.1. Berdintasunerako egiturak.....	12
• Berdintasunerako zerbitzua	
• Udaleko koordinazio-egitura	
• Udalaren barrurako koordinazio-egitura	
• Udalaren barrurako batzordea	
6.2. Baliabide ekonomikoak.....	13
6.3. Berdintasunerako II. Plana Kudeatzeko metodologiak.....	13
7. Planaren garapena.....	15
7.1. Planaren egiturako osagaien deskripzioa.....	15
• Ardatz estrategikoak.....	15
• Esku-hartze eremuak.....	16
• Helburu orokorrak eta espezifikoak.....	21
• Ekintzak.....	22
7.2. Ardatz estrategikoak, esku-hartze eremuak eta helburu orokorrak.....	23
7.3. Helburu espezifikoak eta ekintzak.....	24
8. Kronograma.....	43

# 1. Aurkezpena

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna demokraziaren oinarritzko printzipioa da. Hala ere, ez dago zalantzarik, errealitatean oraindik ere sexua dela-eta diskriminatu egiten dela. Kanporaketa, bazterketa eta desberdinketaren aurka borrokatzeko, politikek aldaketa eta berrikuntza prozesua egin behar dute. Bide honetan, sustatu eta hedatu egin behar dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarri diren baloreak; errealitate honi loturiko gaiak hobeto ulertu eta, xede hori lortzeko, Gizarteko Agente guztien gaitasuna indartu.

Hori dela-eta, 2007-2009ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plan honek Elorrioko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuari eusten dio. Batez ere, Ekintza Positiborako I. Udal-Planari esker martxan jarri ziren gaiak mantendu eta hobetu nahi ditugu. Hala nola, emakumeak ahalduntzea eta euren baldintzak hobetzea, hezkidetzak, berdintasunaren arloko prestakuntza eta arreta berezia eskaini zaio emakumeen aurkako indarkeriari.

Beste alde batetik, gizonei egiten diegun proposamena azpimarratu nahi dugu berriro ere. Proposamen horren helburua da gizonak animatzea erantzunkidetasuna kudeatu eta laguntasuna behar duten pertsonak zain ditzaten, azkenean horren bidetik sortzen den eremua gizonena eta emakumeena izan dadin. Eta beste urrats bat ere eman dugu; udalaren kudeaketa-sailetan generoaren ikuspegia sartu dugu ardatz estrategikoen artean.

Aipatutako gauza hauek guztiek, esparru politikoari zera eskatzen diote: emaitzen berdintasuna helburua izatea eta horretarako diskriminazio zuzena eta zeharkako diskriminazioa ekiditeko neurriak hartzea. Diskriminazio zuzenak egoera bat islatzen du: egoera berdinen aurrean, sexuaren zioz, emakumearen kaltetan jokatzeko, gizonaren mesederako. Diskriminazio ez-zuzenak, aldiz, era kamuflatuagoan baina sarriago, zaildu egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Garrantzitsua da baita ere, udalaren esku-hartzeek asistentzia-jarrerak eta emakume talde oso txiki bati begira egiten diren lanak gainditzea. Udalak politika integralaren alde era aktiboan egin beharko luke apustu, gizarte osoari zuzenduta, bai udal mailan bai eskualde mailan. Politika horrek udaleko kudeaketa esparru guztiak inplikatu beharko lituzke eta esku-hartzearen oinarritzko irizpideak kontuan hartu: desberdintasunari aurre egitea eta emakumeak gizartean sustatzea.

Horretaz konturaturik, Udal hau, Herri Administrazioekin batera, era berezian inplikaturik eta legitimatuta dago. Ez bakarrik apirilaren 2ko 7/1985 legeak (Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena) eskumenak ematen dizkiolako, baita ere 4/2005eko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeagatik (Eusko Jaurlaritzak 2005eko otsailaren 18an onartu zuen). Hain zuzen ere, horregatik hartzen dute garrantzi handia konpromisoek eta esku hartzeko aukerek, emakume eta gizonen Aukera Berdintasunerako Politika Publikoen barruan.

## 2. Erakunde- eta lege-esparrua

Azken urte hauetan lege eta arau juridiko asko sortu da nazioartean, Europan, Estatuan eta herri mailan; hauen helburua beti izan da Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna era esplizituan onartzea. Beraz, esan daiteke Plan honek erakundeen eta legeen babes zabala duela.

### NAZIOARTEKO MAILA

- Nazio Batuen Gutuna. (San Frantzisko, 1945eko ekainaren 26a).
- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Nazio Batuen Batzorde Nagusiak aldarrikatu zuen, 1948ko abenduaren 10ean.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (Nazio Batuak. New York, 1966ko abenduaren 19a).
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (Nazio Batuak, New York, 1966ko abenduaren 16a).
- Emakumearen aurkako bereizketa guztiak kentzeko Biltzarra (CEDAW). Nazio Batuak, New York, 1979ko abenduaren 18a. Espainiak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen.
- Nazio Batuek Emakumeen aurkako indarkeria ekiditeko Res AG 48/104 Deklarazioa egin zuten. Aldarrikapena Batzar Nagusiak egin zuen Vienan, 1993ko abenduaren 20an.
- Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Biltzarrak, Nazio Batuek antolatuta.
- Emakumeei buruzko Nazioarteko Biltzarrak. Mundu mailan esku hartzeko proposamenak dira eta nazioarteko beste tresna batzuen oinarrian daude:
  - Emakumeei buruzko Mundu mailako I. Biltzarra. Mexikon egin zen 1975. urtean.
  - Emakumeari buruzko Nazio Batuen II. Biltzarra. Kopenhagen egin zuten 1980an.
  - Emakumeari buruzko Nazio Batuen III. Biltzarra. Nairobin egin zuten 1985ean.
  - Emakumeari buruzko IV. Biltzarra. Pekinen egin zuten 1995eko irailaren 4tik 15era. Biltzar hartan berdintasunaren garrantzia eta sexua dela-eta ez baztertzearen garrantzia azpimarratu zuten. Beijingeko Deklarazioa eta Esku-hartzeko Plataforma onartu egin zuten, emakumeen eskubideak bermatzeko.
  - New Yorkeko Konferentziak. Pekineko Esku-hartzeko Plataforma aztertu ez ezik, (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2000ko ekainaren 10a), Esku-hartzeko Plataformaren garapenean izandako emaitzak eta oztupoak ere aztertu zituzten.
- Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 1997/44 ebazpena (1997).

### EUROPA MAILAN

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (ECHR), Europako Kontseiluarena. Erroma, 1950eko azaroaren 4an (Espainiak 1977ko azaroaren 24an berretsi zuen). 14. artikulua berariaz dakar adierazpena: berdintasuna eta sexuaren zioz bereizkeriarik ez egitea.
- III. Ministerio Biltzarra, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa (Erroma, 1993ko urria).
- IV. Ministerio Biltzarra, Emakumeei eta Gizonei buruz Europako Kontseiluak egin zuena. Istanbulen izan zen 1997an. Estatu kideak premiatu egin zituzten emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Esku-hartze Plana presta zezaten.

- Europako Kontseiluko Bigarren Biltzarreko Azken Deklarazioa. Estrasburgen sinatu zuten 1997an. Estatu buruek eta Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriaren eta sexu-esplotazioaren aurka tinko borrokatuko zutela adierazi zuten.
- Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen aholkua (2002)5, emakumeak indarkeriatik babesteko (2002ko apirilaren 30ean).
- Erromako Ituna (1957ko martxoaren 25ean). Itun honek eratu zuen Europako Ekonomia Erkidegoa. 14. artikulua ezartzen du berdintasun printzipioa eta sexuaren zioz bereizkeriarik ez gertatzea. Bestalde, 114. artikulua (lehen 119.a) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna islatzen du, esanez lan berdinen truke edo balio berdina duen lanaren truke soldata berdina irabazteko eskubidea dutela.
- Europako Batasunaren Ituna (Maastricht, 1992ko otsailaren 9a). 6. artikulua dioenez, berdintasun-printzipioa ez da oztopo izango Estatu kideek ekintza positiborako neurriak har ditzaten.
- Amsterdameko Ituna (EBko hamabost herrialdeetako Atzerri-arazoetako ministroek sinatu zuten, 1997ko urriaren 2an). Europako Batasuneko Itunaren 6. artikulua aldatu zuen (lehengo F artikulua), giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetuari buruzko printzipioa sendotzeko. Gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunari buruzko xedapen berriak sartu zituen.
- Europako Konstituzioa eratzeko Ituna. Europako Kontseiluak adostu zuen Bruselan, 2004ko ekainaren 18an. Genero berdintasunari buruz, I Zatik 1-2 artikulua dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Batasunaren balioa dela; bestalde, 1-3 artikulua dio Batasunak sustatu egingo duela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- Europako Batasuneko Arteztarau asko.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 806/2004/CE Araudia, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa, Garapenaren Kooperazioan. Politika guztietan genero ikuspuntuaren printzipioa aplikatzea du helburu.
- Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Ekintza Komunitariorako IV. Programa (1996-2000). Batasuneko Estatuak egiten dituzten politiketan aukera berdintasuna zeharka integratu; horri esaten zaio "mainstreaming". Azpimarratu egiten da gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua sustatu egin behar dela, bai erabakietan bai aginte-maila guztietan. Eta honek eragina du emakumearen aurkako indarkeriaren arazoan.

## ESTATU MAILAN

- Espainiako Konstituzioa (1978). 14. artikulua: "Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean. Ez da inor baztertuko jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako edozein egoera pertsonal edo sozialengatik". 9.2 artikulua zera dio: "Botere publikoen eginkizuna da baldintzak sustatzea gizabanakoaren eta taldeen askatasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin; askatasun osoa ukatu edo galarazten duten oztopoak kentzea eta hiritar guztien parte-hartzea erraztu, bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalan eta sozialean".
- 39/1999 legea, azaroaren 5koa, emakume langileek familia eta lana ondo uztar dezaten.
- 7/1985 legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 1/1995 Legegintzako Errege-dekretua, martxoaren 24koa. Honen bitartez onartu zen Langileen Estatutua.
- 1251/2001 Errege-dekretua. Honen bitartez garatzen da Familia eta Lana Uztartzeko Legearen zati bat.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriak hartzen dituena. Lege Organiko honen helburua da emakumeen aurkako indarkeriari erantzun globala ematea eta garapenerako araudia.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN

- Alde batetik Autonomia Estatutuak 9.2. artikuluan aipamen berezia egiten dio berdintasunari, eta beste alde batetik 1988an EMAKUNDE/ Emakumearen Euskal Institutua sortu zen. Gauzak honela, 1991n Emakumeentzako Ekintza Positiborako I. Plana onartu zen. Honen ondoren beste hiru plan egin dira.
- Bestalde, 2005eko otsailaren 15ean Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Eta 2006an Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana onartu da EAEn.
- 2000. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak Berdintasunerako I. Foru-Plana onartu zuen. Ondoren, II. Planak 2007ra arteko balioa eman dio.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legearen esparruan, aipatutako 4/2005 Legeak argi zehazten ditu administrazioaren maila bakoitzari dagozkion eginkizunak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean; emakumeen eta gizonen artean berdintasuna efektiboa eta benetakoa izan dadin, botere publikoak behartu egiten ditu baldintzak sustatzera eta oztopoak kentzera, eta baita ere bere politika guztietan eta ekintzetan aipatu berdintasuna sustatzera.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Legeak honako eginkizun hauek ematen dizkio Tokiko Administrazioari:

- a) Genero-ikuspuntua integrazteko egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortu.
- b) Ekintza positiboko neurriak hartu.
- c) Programazioa Gobernuaren plangintza orokorraren baitan eta kasuan kasuko Foru Aldundiaren programazioaren baitan egingo da.
- d) Estatistikak moldatu eta eguneratu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoera nolakoa den jakiteko eta berdintasuna sustatzeko zer egin jakiteko.
- e) Herri mailan emakumeen eta gizonen egoera zein den jakiteko azterketak eta ikerketak egin.
- f) Jarduerak egin, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari buruz sentsibilizatzeko eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriak hartzeko.
- g) Tokiko araudiari eta aplikazioari jarraitu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren ildotik.
- h) Herritarrak, eta bereziki emakumeak, informatu eta bideratu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko baliabideez eta programez, eta baita ere bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeei eskubide sozial oinarrizkoak bermatzeko dauden programez eta zerbitzuez.
- i) Programak eta zerbitzuak eskaini, bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeei eskubide sozial oinarrizkoenak bermatzeko helburuarekin (diren bezalakoak izanda, herrian bertan eskaini behar dira).
- j) Baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak eskaini, bizitza pertsonala, familia eta lana egoki uztartzeko (baliabideen eta zerbitzuen ezaugarriak kontuan harturik, herrian bertan eskaini behar dira).

- k) Erakunde publiko eta pribatuekin parte-hartze eta kolaborazio-harremanak eta bideak eratu. Erakundeek beraien helburuen eta eginkizunen arabera, laguntasuna eskainiko dute herri mailan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.
- l) Sexua dela-eta, herrian gertatzen diren bereizkeriak antzeman eta ezabatzeko neurriak hartu.
- m) Beraien eskumen-eremuko beste edozein eginkizun.

Gauza hauek guztiak izan ditugu kontuan Elorrioko Berdintasunerako II. Plana egiterako orduan.

## 3. Kontzeptu-esparrua

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana Elorrion egiteko, bi estrategia planteatu ditugu, herri mailan berdintasun-politikak txerta daitezen: Mainstreaming-a eta Ekintza Positiboa.

### GENERO MAINSTREAMING-A

Politika hauek garatzeko Generoaren Zeharkakotasuna edo Genero Mainstreaming-a nahitaezko estrategia da. Aditu Taldeak kontzeptu honen definizio hau egin du:

“neurri politikoak hartzen dituzten aktoreek genero-ikuspegia politika guztietan txertatu behar dute; prozesu politikoaren antolaketa (berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta azterketa, maila guztietan eta etapa guztietan”.

Beraz, estrategia hau izango da berdintasunaren alorrean egingo diren esku-hartze guztien ardatza. Ondorioz, Planaren diseinuan praktikan jartzeko behar diren mekanismoak sartuko dira.

### EKINTZA POSITIBOA

Honekin batera, Ekintza Positiboa tresna eraginkorra denez, aintzat hartuko da (Europako Batasuneko Ekintza-programetan egin ohi den bezala). Beraz, Ekintza Positiboa Aukera Berdintasunaren “betiko” politiken baitan kokatu behar da. Politika hauen abiapuntua genero desberdintasunaren ondorioz sortutako arazo espezifikoaren konponbidea izango litzateke. Europako Batasunak Aukera Berdintasunerako duen Kantsultarako Batzordeak honela definitzen du:

“ekintza-programa gisa gauzatzen den estrategia. Aukera berdintasuna ekintzetan mamitzea du helburu. Horretarako, gizartearen praktiken eta sistemaren ondorioz gertatzen diren bereizkeriei aurre egiteko edo zuzentzeko aldi baterako neurriak hartuko dituzte”.

Bi estrategiak osagarriak dira berdintasun-politikak gauzatzeko. Zeharkakotasunak aldatzeko gaitasun handia ematen dio, baina hori ezartzeko denbora behar da, egituretan eragin handiagoa duelako. Bestalde, Ekintza Positiboak eragin askoz azkarragoa du, desberdintasun espezifikoa ageri den egoerak aldatzeko.

## 4. II. Planaren ezaugarriak

- 3 urteko indarra du: 2007-2009 eperako eginda dago.
- Era parte-hartzailean egin da: aldez aurreko diagnostia egon da eta Udalak eta Herriko Erakundeek parte hartu dute.
- Plan irekia eta malgua da, ezarpen-prozesuan aldaketak egin dakizkioke.
- Plan ebaluagarria da. Azterketa-sistemaren garapena planteatzen da eta aurreikusitako helburuei buruzko adierazgarriak proposatzen dira.
- Bere baitan Ardatz estrategikoak ditu, Esku-hartze Sailak, Helburu Orokorrak eta Espezifikoak eta ekintzak. Guztiak ere, Udaleko Sailek eta erantzukizuna duten Agenteeek garatu behar dituzte (aurrez zehaztutako epean).
- Tresna honek herriari eragiten dio eta konpromiso teknikoa, politikoa eta hiritarra eskatzen du.
- Plan hau honela osatuta dago: 4 Ardatz Estrategiko, 7 Esku-hartze Sail, 21 Helburu Orokor, 43 Helburu Espezifiko eta 71 Ekintza.

## 5. Plana egiteko erabili den metodologia

Berdintasunerako Udaleko II. Plan hau egiteko, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko diagnosia egin da alde zuzenetik, bai udalean bai herriko beste eremu batzuetan. Hori lortzeko udaletxeko langileek eta Elorrioko elkarte eta erakundeetako ordezkariak egin dute lan. Era horretan informazioa lortu da, azterketa eremu bakoitzak zeintzuk premia dituen jakiteko.

Jarraian zehaztuko ditugu 2006ko bigarren sei hilabete zehar Berdintasunari buruz Elorrion egin den Diagnostikaren fase nagusiak:

### 1. FASEA:

Azterketarako aldagaiak erabaki datu-bilketarako tresnak elaboratu eta aplikatu.

1) Udaleko Sail guztietako arduradunei elkarrizketa sakonak egin. Zenbait aldagai izan ditugu kontuan, hala nola: Udaleko Sail bakoitzean gizonek eta emakumeek Berdintasun-politiketan duten inplikazio maila, aipatutako Sailen egitura, Sail bakoitzean betetzen diren eta beteko diren helburuak eta ekintzak, etab. Sail hauetan egin ditugu elkarrizketak: Idazkaritzan, Hirigintzan, Pertsonalean, Ogasunean, Kulturean, Ongizatean, Euskaran, Hezkuntzan eta Udaltzainguan.

2) Herriko Erakundeetako hainbat ordezkari elkarrizketa sakonak egin dizkiogu. Herrian egindako elkarrizketa hauetan, erakunde horiek Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari dagokionez, sentsibilizazioarekin, ezagutzarekin eta inplikazioarekin zerikusia duten aldagaiak aztertu ditugu; horrez gain, ildo horretan egiten dituzten ekintzak eta euren arloan generoaren ikuspegitik sumatzen dituzten premiak ere aztertu ditugu, emakumeenak zein gizonenak.

Diagnosia egiteko herriko kultura eta kirola ordezkatzeko duten hainbat erakunde eta elkarteetako partaideak elkarrizketatu genituen. Hona hemen zehaztuta:

- Udal-zentroak: Arriola Kultur Aretoa, Udal-liburutegia, Garamenditar Agustín Musika Eskola.
- Elkarateak: Besaide Dantza Taldea, Barriketan Euskara Elkaratea, Argazki-elkaratea, Elorrixa Ekologi Taldea, Esku Lanak Elkaratea, Gure Ondare Elkaratea, Intxorta Aisialdi Elkaratea, Iturri Zoro Elkaratea, Kainabera GKE, Filatelia-elkaratea, Xake Taldea, Elorri Kirol Taldea, Larrano Parapente eta Txirrindularitza Taldea.
- Ikastetxeak: Elorrioko LHIK, Elorrioko BHI, Txintxirri Ikastola, Lurdesko Ama Ikastetxea eta Maria Mediadora Ikastetxea. Berritzegunea.
- Durangaldeko Behargintza.
- Osakidetzaren Osasun-zentroa.

Herriko emakumeen hiru elkarteak ere elkarrizketatu genituen: Elorri-Lore, Lilika eta Alargunen Elkaratea.

Elkarte hauetako ordezkariak galdera-sorta bati erantzun zioten, horrela jakin dugu emakumeek zeintzuk premia dituzten, udaletik eta beste erakunde batzuetatik eskaintzen dizkieten zerbitzuei buruz.

Osagarri gisa, hainbat gairi buruzko dokumentazio-lana ere egin dugu, kopuru aldetik gauza zehatzagoak jakiteko. Helburu hau lortzeko honako estatistika-iturri hauetara jo dugu:

- Euskal Estatistika Erakundea: EUSTAT.
- Estatistikako Institutu Nazionala: INE.
- Elorriko Udalaren web-orria.
- Durangaldeko Behargintzaren sei hileko txostena.
- Agenda XXIen Udal-jasangarritasunaren diagnosia (2005)

## 2. FASEA:

Diagnosiaren emaitzak helburuen lehen aurrerapenarekin eta II. Planaren ekintzekin alderatu genituen. Lan hau Emakume-elkartekin (LILIKA, ELORRI LORE eta Elorriko Alargunen elkarteekin), Udaleko langileekin eta Ongizate Batzordearekin egin genuen.

## 3. FASEA:

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Planaren (2007-2009) behin betiko agiriaren erredakzioa eta aurkezpena udalbatzan.

## 6. Berdintasunerako Egiturak eta Baliabideak

### 6.1. Berdintasunerako Egiturak

Arestian azaldutako Ardatzetatik eta Saisetarik eratorritako helburuak eta ekintzak lortzeko, egitura batzuk eratuko dira, Udalean nahiz herriko Erakundeetan eta Mankomunitateko beste udal batzuetan. Hauek lirateke egiturak:

- Bultzada-egitura: Berdintasunerako Udal-zerbitzua.
- Udal-koordinaziorako egiturak: Berdintasunerako Sailen arteko batzordea eta Berdintasunerako Foroa.
- Udalen arteko koordinazio-egiturak: Berdintasunerako udal-barruko batzordea (Durangaldeko Mankomunitatea), Berdinsarea Sarea (EUDEL).

### Berdintasunerako zerbitzua

Plan honek dirauen artean, mantendu egingo da Berdintasunerako Zerbitzu hau. Horretarako, Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunean eta Genero-politiketan aditutako langileek arduratu eta koordinatuko dute II. Plan honen abiatze prozesua. Langile hauek Alkatetzaren menpe egongo dira.

### Udaleko koordinazio-egitura

#### SAILEN ARTEKO BATZORDEA:

Sailen arteko batzorde bat eratuko da. Alkatea izango da batzordearen buru. Udaleko Sailek osatuko dute batzordea. Hauen eginkizuna izango da II. Planaren programazioa koordinatzea eta kudeatzea, martxan jartzea, jarraipena egitea eta aztertzea.

#### BERDINTASUNERAKO FOROA:

Berdintasunerako Foroa eratuko da. Bertan Emakume-elkarteek eta herriko beste erakunde batzuek parte hartuko dute (kultura, kirola, hezkuntza, osasuna eta beste arlo batzuetako erakundeak). Foro horretan II. Plana bultzatu eta koordinatu ez ezik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari loturiko gai interesgarriak eztabaidatuko dira eta sortzen diren premia berriei arreta jarriko zaie.

### Udalaren barrurako koordinazio-egitura

Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sareko kidea izateaz gain (EUDELeko BERDINSAREA), sistematizatu egingo dira orain arte Durangoko eta Abadiñoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuekin izandako batzarrak, Berdintasunerako Udalaren barruko batzordea sortuz. Batzorde honetan

parte hartzeko eta zerbitzuak zein ekintzak elkarrekin koordinatzeko erraztasunak emango zaizkie Mankomunitateko beste udal batzuei.

## 6.2. Baliabide ekonomikoak

Berdintasunerako II. Planetik eratorritako Urteko Programa Operatiboak (UPO) martxan jartzeko urteko aurrekontua erabakiko da. Komenigarria litzateke aurrekontuak erantzutea bai Berdintasunerako udalaren barruko zein kanpoko gastuei, bai aurreikusitako ekintzei.

Berdintasunerako Egituren aurrekontua udaleko aurrekontu funtzionalen edo zeharkako sailen arabera izango da. Urtean egin beharreko ekintzei dagokien aurrekontua Udaleko Sailen artean banatuko da, aukeratutako helburu eta ekintzen artean.

## 6.3. Berdintasunerako II. Plana kudeatzeko metodologiak

Plan hau kudeatzeko eta garatzeko "oinarrizko" metodologiak jarraian aipatuko ditugu. Berdintasunerako Zerbitzuak (II. Plana bultzatzeko egitura) garatu beharko ditu metodologia hauek.

- Urteko Programa Operatiboak (UPO) ezarri; urtero egin beharreko ekintzak eta aurreikusitako aurrekontua barne. Programa hauek ekitaldi amaieran egingo dira, hurrengorako.
- Azterketa-sistema garatu, Berdintasunerako II. Plana martxan hasten den unetik. Proposatutako azterketa-adierazgarriak izango ditu oinarri.
- Genero-ikuspuntua esku-hartze tresnetan txertatzeko Taldeak martxan jarri. Lan-talde hauek honela egongo dira osatuta: alde batetik, generoan aditua den pertsona bat; bestetik, bultzada-egitura (Berdintasunerako Zerbitzua); eta, beste alde batetik, Udaleko langileak eta politikariak, udaleko esku-hartze tresnetan inplikaturakoak guztiak ere. Aztertu behar diren tresnak bezainbeste talde eratuko dira.

Jarraian, Ekintza-fitxa eredu bat duzue. Ekintza bat egin behar den bakoitzean bete eta adostu beharko litzateke honelako fitxa bat, Udaleko Urteko Programa Operatiboak erabaki ondoren.

## EKINTZA-FITXA EREDUA

<b>ARDATZ ESTRATEGIKOA:</b>		<b>SAILA:</b>			
<b>HELBURUA:</b>					
<b>EKINTZA:</b>					
<b>JARDUERA:</b>					
<b>Jardueraren deskripzioa:</b>					
<b>Justifikazioa</b>					
<b>Zein pertsonarentzat edota erakunderentzat</b>					
<b>BETEARAZTEAREN ARDURADUNAK</b>					
<b>Sail arduraduna</b>	<b>Pertsona arduraduna/k</b>	<b>Sail laguntzaileak</b>		<b>Pertsona laguntzaileak</b>	
<b>Betearazteko epea</b>				<b>Aurrekontua</b>	
<b>1T2007</b>	<b>2T2007</b>	<b>1T2008</b>	<b>2T2008</b>	<b>Jatorria</b>	<b>Kopurua</b>
<b>PROZESUAREN ADIERAZLEAK:</b>					
<b>PORTU NAHI DIREN EMAITZAK:</b>					
<b>IRUZKINAK:</b>					

# 7. Planaren garapena

## 7.1. PLANAREN EGITURAKO OSAGAIEN DESKRIPZIOA

Hauek dira Planaren oinarritzko osagaiak:

- ARDATZ ESTRATEGIKOAK
- ESKU-HARTZE EREMUAK
- HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK
- EKINTZAK

### ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Berdintasun-politiketan landuko diren oinarritzko gaiak definitzen ditu. Hauek lirateke gaiok: Genero Mainstreaming-a, emakumeak ahalduntzea (eskubideetan aurrera egitea) eta emakumeen aurkako indarkeria:

#### 1) Genero Mainstreaming-a:

Zeharkakotasuna ere esaten zaio. Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak proposatu zuen lehen aldiz 1987an. Genero-ikuspuntua integratzea ekarri du. Hau da: emakumeen eta gizonen egoera desberdinak, baldintzak, nahiak eta premiak era sistematikoan hartu ditu kontuan; desberdintasunak kentzeko helburu eta ekintza espezifikoak eginez. Horretarako, politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatuz, maila guztietan eta planifikazio, gauzatze eta azterketa-fase guztietan.

#### 2) Emakumeak ahalduntzea eta soziopolitikan parte-hartzea:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta bermatzea esan nahi du, eta bereziki emakumeen autonomia sustatzea eta egoera indartzea.

#### 3) Bizitzako zenbait arlo uztartzea eta erantzunkidetasuna:

Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea errazagoa izatea esan nahi du. Hauek lirateke bideak: gizonen erantzunkidetasuna indartu etxeko lanetan, lanaren egiturak norberaren eta familiaren bizitzako premietara egokitu eta zerbitzu soziokomunitarioak egokitu.

#### 4) Emakumeen aurkako indarkeria:

Agiri osoak prebentzio-izaera izanik ere, ardatz honek era espezifikoan egiten dio aurre emakumeen aurkako Indarkeriari, sexu-indarkeriaren aurkako neurriak eta baliabideak hartzea erraztuz. Hau da era honetako indarkeriaren definizio zehatza: indarkeria-ekintza honako hau litzateke; arrazoia sexua izanik, emakumearen aurka egiten den edozein kalte, fisikoa, sexuala zein psikologikoa. Mehatxatzea, derrigortzea eta askatasuna kentzea ere kalte egitea da; jende artean egin, zein pribatuan egin.

## ESKU-HARTZE EREMUAK

Esku-hartzearen oinarrizko eremuak dira. Hauetan lan eginez lortuko dugu berdintasuna. Berdintasunerako II. Udal-Plan hau definitzeko eremuak hauek liriateke:

TOKIKO ADMINISTRAZIOA  
KULTURA ETA KIROLA  
HEZKUNTZA  
OSASUNA  
ENPLEGUA  
GIZARTERATZEA  
HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Era berean, garrantzitsua da esatea Sail bakoitzaren erantzukizuna ez dela bukatzen Sail horrek egiten duen esku-hartzearekin. Izan ere, departamentu (edo udaleko Sail) batzuek Esku-hartze Sail baten baino gehiagotan eskumena izan dezaketelako. Hala ere, II. Plan honen Esku-hartze Sailen egituraketak ikuspegi osoa eta garbia izaten lagunduko digu, Sail bakoitzean zer egin jakiteko eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren aldeko helburuak lortzeko. Beraz, aurrerago aurkeztuko ditugun helburuak eta ekintzak Sail bakoitzaren diagnostia egiterakoan antzemandako premietan oinarritzen dira.

### 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna erakunderen batean txertatu behar denean, bertan lan egiten duten pertsona guztien motibazioa behar da. Udal batean, Tokiko Erakundea den aldetik, bai politikariek bai udal-langileek (azpikontrataturako langileek barne), sentsibilizazio maila egokia behar dute, Berdintasunerako edozein Politika arrakastaz martxan jarriko bada. Motibazioan eta sentsibilizazioan faktore hauek egongo liriateke: batetik, bi sexuen arteko berdintasuna eta helburuak zergatik lortu nahi diren jakitea; bestetik, pertsona guztien inplikazioa eta parte-hartzea, bai planifikazioan bai ekintzen garapenean.

Beste alde batetik, edozein udaletan Berdintasunerako Politikak lortzeko beste faktore erabakigarri bat izango litzateke egiturak eta baliabideak eskaintzea, pertsonen aldetik zein ekonomiaren aldetik (aurreko ataletan azaldu dugun bezala).

Udala osatzen duten pertsonen azterketa egin ondoren, ikusi dugu Udalbatza 11 gizonek eta 2 emakumek osatzen dutela; alegia, %80 gizonak direla eta %20 emakumeak. Horrek esan nahi du emakumeen partaidetza txikia dela herriko erabaki politikoetan.

Langile kopuruak egoera hobea erakusten digu. Izan ere, langileen artean 28 gizon eta 19 emakume daude, gizonak %60 eta emakumeak %40. Komenigarria litzateke udal-plantillaren azterketa sakonagoa egitea, eta hori egingo da II. Plan honetan, beste aldagai batzuk kontuan izanda: zein Sailetan dauden, zein kargu duten, nolako kontratua, etab.

Berdintasunerako I. Plana indarrean egon den bitartean, 2004 eta 2005 urteetan, politikariak eta udal-langileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak egin dira. Udaleko langileen artean Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alorrean prestakuntzaren aldetik zeuden premiak aztertu ondoren, Berdintasun-politikei buruzko ikastaroak eman zituzten eta generoaren ikuspegitik proiektuak nola planifikatu ikasi zuten. Ikastarook udal-langileentzat eta politikarientzat izan ziren.

Guztiarekin, II. Plan honen ezarpenak Aukera Berdintasunaren bidetik sakontzea eta aurrera egitea eskatzen du, prestakuntzan jasotako ideiak eta baloreak udal-langileen eguneroko bizitzan barneratuta izan ditzaten. Zentzu honetan Berdintasunerako Legeak zera dio: "...Euskal Administrazio Publikoek euren langileentzat oinarritzakoa, progresiboa eta iraunkorra izango den prestakuntzarako behar diren neurriak hartuko dituzte emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunaren alorrean. Horren helburua da legearen xedapenak betearaztea eta genero ikuspegia benetan integratzeko behar den ezagupen praktikoa bermatzea."- 1 puntua, 17. artikulua, III. kapitulua, II. titulua -.

## 2. SAILA: KULTURA ETA KIROLA

Kultura eta kirola. Lehenengo kasuan sorkuntza artistikoa eta bigarrenean parte-hartzea. Emakumeek gero eta aukera handiagoa dute gizarteko bi eremu horietan sartzeko. Urteetan ez dute izan adierazteko aukerarik ez eta gizartearen onarpenik (asko jota, onarpen txikia eta ordezkartza kaxkarra izan dute).

Elorriko Berdintasunerako Zerbitzuak, batzuetan bere kabuz eta beste batzuetan beste Sail eta Erakunde batzuekin, hainbat ekitaldi antolatu ditu kulturaren eta kirolaren inguruan (lehiaketak, txangoak eta ibilaldiak, besteak beste). Ekitaldi hauen helburua da emakumeei parte hartzeko gogoia eta jakin-mina piztea kulturaren ekoizpenari eta kirol-aktibitateari dagokionez.

Kulturaren eremuan Elorriok eskaintza zabala du, Kultur zentroek eta Elkarte askok era erregularrean eta aktiboan egiten dutelako lan. Emakumeen eta gizonen partaidetzari buruz konturatu gara, emakumeek antolatutako ekitaldi-kopurua gizonen antolatutakoa baino pixka bat handiagoa dela. Nahiko desberdintasun nabarmena dago ekitaldi motari dagokionez. Ildo honetan, esan daiteke gizonentzat "egokiagoak diren" ekitaldiak daudela eta emakumeentzat "egokiagoak direnak" daudela. Bada, hizkuntzari edo historiari loturiko ekitaldietan emakumeen partaidetza eta ordezkartza zuzendaritza-organoetan askoz handiagoa da (ondare historikoa babesten duten elkarteetan, pinturan eta euskaran esaterako).

Euskal Herriko tradizio baten isla ere badugu Elorriko. Deigarria da gastronomia-elkarteetan emakumerik ez aurkitzea ia. Hauetako bitan gainera emakumeei galarazi egiten zaie sartzea.

Kirolaren arloan, emakumeen kirola sustatzeko eta bultzatzeko hainbat eremutan neurriak hartzea erabaki da (ikastetxeetan eta kirol-elkarteetan). Ohartu baikara, emakumeak nerabazarora iristen direnean kirola alde batera uzten dutela.

Era berean, emakumeen futbol-taldeen ere atera ditugu ondorio batzuk: ez dute iraupen handirik izaten, oso ezegonkorrak dira, diru-laguntza urria izaten dute eta gizarteak ez ditu ia aintzat hartzen.

Arrazoi hauek direla-eta, eraginkorra izango litzateke Administrazioetik bertatik estrategia eta ekintza-plan zehatzak egitea, kirolean ere neska-mutilen arteko berdintasuna errazteko.

### 3. SAILA: HEZKUNTZA

Gizakiaren nortasuna garatzeko tresna garrantzitsuena hezkuntza dela kontuan harturik, hezkuntzak berak erabaki du gizonen eta beraien baloreen nagusitasuna; bai bizitza publikoan, bai kulturean eta baita bizitza sozialean ere. Horren eraginez, emakumeak esparru pribatuan baztertuta bizi izan dira luzaro.

Sail honen diagnosa egiteko Elorrioko bost ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak elkarrizketatu ditugu: Elorrioko LHIK, Elorrioko BHI, Txintxirri Ikastola, Lourdesko Ama Ikastetxea eta Maria Mediadora Ikastetxea. Era berean, Agendako udal-langileei, Hezkuntza Sailekoei eta Berritzegunekoei ere kontsultak egin dizkiegu. Horrez gain, Behargintza 2006ko sei hileko 1. Memoria ere eskatu dugu. Datu hauek oso erabilgarriak dira Sail honetan Planaren helburuak eta ekintzak gauzatzeko.

(2005) Agendako Udal-jasangarritasunaren Diagnosiak eskaintako datuen arabera, azpimarratu egin behar da elorriarren ikasketa-maila orokorra, batzaz beste durangarrena eta bizkaitarrena baino pixka bat txikiagoa dela.

Lanbide Hastapenetarako Ikastegia Gizarte-bermerako programa da DBHko helburuak lortzen ez dituzten ikasleentzat eta oraindik ere gizonak nagusi dira bertan (63 mutil eta 12 neska). Elorriko bigarren sektorea oso garrantzitsua denez, garrantzitsua da era honetako trebakuntza eskaintzen duten zentroek programa malguak eta informazioa zein aholkularitza zerbitzuak martxan jartzea, emakumeek era honetako prestakuntzari hel diezaioten.

Beste alde batetik, Berdintasunerako I. Udal-plana egin zenetik, Elorrioko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua hezkidetzaren proiektuak bultzatzen ari da zenbait ikastetxetan.

Horrela, irakasleek, ikasleek eta Guraso Elkarrekin genero berdintasunaren alde egiten dute lan. Dena den, herriko ikastetxe guztietako zuzendaritza-taldeen ikastetxe guztietan hezkidetzaren bultzatu behar dela esan arren, agente guztien kolaborazioa eta motibazioa behar litzateke. Ildo beretik, beharrezko ikusten da ikasleentzako Norabide-zerbitzuan ere esku hartzea; ikasgai-programan espezialitateak aukeratzeko orduan ohiko aukera egin ez dezaten, alegia "mutilen" eta "nesken" ikasketarik egon ez dadin.

Sail honi amaiera emateko, emakume askok azaldutako premia ekarriko dugu gogora: Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroa (HHI) sortzeko premia.

### 4. SAILA: OSASUNA

Osasunaren kudeaketa era zabalean ulertu behar da, erakunde askotatik eta perspektiba integralaz. Gaixotasun fisiko nahiz psikikoen gabezia baino askoz gauza konplexuagoa da. Beraz, ez da erizaintzaren eremura mugatu

behar; informazio, hezkuntza eta prebentzio alorretan lan-eremu zabala dago-eta. Bide honetan egin daiteke lana herri mailan.

Elorriko emakumeek ondoez fisiko eta psikikoen arazoak eta ondorioak zeintzuk diren jakiteari garrantzitsua deritzogu (emakumeen premiak, egoerak, lanak eta adina desberdinak izanik ere). Gainera, osasunari buruzko informazioa eta prestakuntza hartzen dute generoaren ikuspuntutik.

Sail honetan diagnostia egiteko, gai desberdinak ukitzen direnez, Elorriko Osasun-zentroko langileei (emaginari eta erizainari) ez ezik, Udaltzain-buruari ere egin dizkiegu elkarrizketak (azken honek genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko protokoloaz zerikusia duelako).

Osasun-zentroari dagokionez esan behar da, medikuntza orokorra eta erizain zerbitzuak eskaini arren, elkarrizketatutako pertsonak adierazi zuten bezala, emakumeek zenbait espezialitate eskatzen dituzte (obesitateari, Antsietateari eta Estresari aurre egiteko, esate baterako). Azkeneko eskari hau lana eta familia uztartu behar duten emakume gazteek egiten dute gehien bat. Honez gain, beste eskari batzuk ere egin dituzte: Fisioterapia-zentroa eta osasun mentalari loturiko tailerrak egin daitezen (mantentzerako eta hobekuntzarako).

Beste alde batetik, Genero-indarkeriari dagokionez, konturatu ginen ez dagoela estatistika-kontrolik ez azterketa zehatzik, ez Osasun-zentroak ez Udaltzaingoak lagundutako kasuei buruz. Udaltzaingoaren kasuan, barrez, ez dago jokabide-protokolorik eta gai honetaz ez dute prestakuntza berezirik izan.

## 5. SAILA: ENPLEGUA

Enpleguaren esparruan, emakumeek lan prekarioenak egiten dituzte sektore formalean zein informalean eta euren ikasketa-mailari dagozkien lanak baino apalagoak egiten dituzte. Hori gutxi balitz, gizonen kasuan baino langabezia-tasa handiagoa dute.

Nahiz eta azken urte hauetan Erakundeek ahalegin handia egin eta baliabide ugari eskaini genero-berdintasuna lortzeko (horrek lan esparruan antolatzeke modu berriak ekarri ditu), oraindik oztopo asko dago emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera iristeko.

Diagnostia egiteko Behargintza 2006ko sei hileko 1. Memoria izan dugu. Horrez gain, Berdintasunerako Udalerbitzuak ikerketa, dokumentazio eta azterketa lana egin du.

Lan ordainduari buruz esan behar da, INEMeko azken datuen arabera (2006ko abuztua), Elorriko 352 lan-kontratu berri egin zituztela, horien artean %49 gizonen eta %51 emakumeen. Jarduera guztien artean, 323 lan-kontratu Zerbitzu arlokoak izan ziren. Dena den, lan-kontratu motari begiratuz, esan beharra dago gizonen egindakoetatik %15 mugarik gabeko bihurtu zirela; emakumeen artean %3 baino ez ziren izan era horretako kontratuak.

Bestalde, Elorriko langabeziari buruzko datu gaurkotuek diotenez, 147 pertsona daude INEMen zerrendatan, horien artean %59 emakumeak eta %41 gizonak.

Durangaldeko Mankomunitateak eskaintzen duen Lanbide-prestakuntzan ibili direnen artean %72 emakumeak izan dira (25 urtetik 35 urtera bitartekoak gehienak) eta %28 gizonak. Lanbide-prestakuntzaren helburua da langabeak gaitzea lanean oinarritzko zereginak egiteko. Hala ere, programa bukatzen denean, ez

dugu daturik jakiteko ea zenbat emakumek eta zenbat gizonek lortzen duten lanean hastea. Uste dugu planifikazio hobea egin behar dela eta programak burutzen dituzten emakumeei jarraipena egin behar zaiela.

Era berean, Mankomunitateak, Lan-orientabide Zerbitzuaren bidez, batez ere 25 urtetik 35 urtera bitarteko emakumeei, emakume langabeei, eskaini die arreta (%67. Gizonak %33 baino ez. Horien artetik %8 elorriarrak). Hala ere, diagnosi honen arabera, Elorrioko emakumeen lan-egoera zein den jakiteko analisi eta azterketa gabezia antzeman dugu; lan-aukera non dagoen bilatu beharko litzateke eta lan-baldintzak hobetzeko, emakumeak zein sektoretan dauden ondo ordezkaturak jakin eta nolako premiak dituzten ezagutu.

Azkenik, herriko Emakumeen Elkarteei egindako elkarrizketen ondorioz, jakin dugu emakumeen artean Teknologia Berriak sustatu eta hedatzeko premia dagoela, ezjakintasun handia dagoelako (batez ere 40 urtetik gorakoan artean).

## 6. SAILA: GIZARTERATZEA

Bazterketa arriskuan dagoen jendearen eta jende ahularen premiak konpontzeko (emakume asko egoten da egoera horretan), sektore publikoak egiten duen esku-hartzea litzateke Gizarte Zerbitzuen ezaugarri nagusia. Elkarbizitzarako eredu aldaketak, inoren menpe bizi diren pertsonak eta lan-prekarietateak egoera berriak sortzen dituzte, eta gizarteak konponbidea aurkitu behar die.

II. Plan hau egiteko, Elorrioko Udaleko Gizarte-langilea eta Haurreskola elkarrizketatu ditugu.

Horrekin batera, datuak atera ditugu (2005) Agendako Elorrioko Udal Jasangarritasunaren Diagnosikoaren laburpenetik. Bestalde, konturatu gara Jasangarritasun Diagnosiaren Gizarte Ekintza, Elkarbizitza eta Elkartasunari buruzko datuetatik bat ere ez dagoela zehaztuta sexua kontuan izanik (AES, Telealarma-programa, asistentzia-ekipamendua, heriotzaren arrazoiak, etab).

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean, Gizarte Zerbitzuen eta Udaltzaingoaren artean koordinazio formalik ez dagoela ohartu gara. Gai honen inguruan esan beharra dago Elorrion genero-indarkeria kasu bakarra gertatu dela 2005ean. Hutsaren hurrengoa, Euskal Herriko gainerako herrietan emakumeen aurkako indarkeria kasuak ia egunero gertatzen direla jakinda. Egoera hau kontuan izanik, II. Plan honek hainbat helburu lortu nahi ditu: indarkeriaren biktimen sorospen-premiei erantzun, txiki-txikitatik sentsibilizatu eta ekidin, eta herrian emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea zein den jakin.

## 7. SAILA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Hiriaren plangintzak erabakitzen du herriko guneei zein erabilera eman eta bera saiatzen da etorkizuna bideratzen. Hiriaren plangintza aberastu egin da Garapen Jasangarriaren kontzeptuaren garapenari esker. Kezka hau Udal-agendan gauzatu da. Hori dela-eta, Diagnostika egiteko Agendako langileak ez ezik, Elorrioko Udaleko Arkitektoa eta Aparejadorea ere elkarrizketatu ditugu.

Alde batetik, funtsezkoa da jakitea emakumeek eta gizonek nola erabiltzen duten hiria, nola betetzen dituzten toki publikoak eta nola iristen diren tokiko ekipamenduetara. Horregatik, garrantzitsua da genero ikuspuntua begi-bistan izatea hirigintza, garraioa eta ingurumenarekin loturiko politikak eta proiektuak egiterakoan. Ildo honetan, ikusi dugu ez dagoela garraio publikorik auzoen eta erdigunearen artean (horrek mugikortasuna

murriztu egiten die gidatzeko baimenik ez duten pertsoneri, baserriko emakume nagusiei esaterako). Era berean, konturatu gara Gipuzkoara eta Berrizera garraio publikoan joan-etorriak egiteko aukera gutxi dagoela.

Herrian eserleku gutxi dagoela eta daudenak konpondu egin beharko liratekeela ere esan digute. Emakume askok erabiltzen dituzte eserlekuak (Aldatzekua Jauregian bereziki) eta eserlekuak handiak direnean, ezin izaten dituzte oinak lurrean ipini.

Bestalde, herriko segurtasuna kezkarria da emakumeentzat, gazteentzat batez ere. Gaez, jende gutxi dabilenean edo argi gutxi dagoen tokietan eta toki bakartietan ibiltzeko askatasunik eta segurtasun handirik ez dutela uste dute. Honen ildotik, interesgarria izango litzateke herriko emakumeen artean galdeketa bat egitea, jakiteko zein tokitan eta zein kaletan dagoen segurtasun eta argitasun gutxi.

Azkenik, gogoratuko dugu kaleen izendegian emakume gutxi ageri dela (egia esan, une honetan emakume izena duen kale bakarra dago: Lourdes Etorbidea). Ez dakigu emakumeek zein ekarpen egin dioten herriko eta Euskal Herriko historiari.

## HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

II. Plan hau osatzen duten esku-hartze Sailak helburu orokorretan eta espezifikoetan eraginkor bihurtuta daude. Helburu horiek adierazten digute aldatu nahi dugun egoeraren eta errealitate sozialaren berri, bai Udalean bai herrian.

Helburu orokorrek adierazten dute zein eragin lortu nahi dugun. Helburu espezifikoak zehaztu aurretik agertzen dira. Hauek, ordea, ekintzek eta emaitzek zein norabide hartuko duten zehazten dute.

II. Planean proposatutako azterketaren adierazgarriei esker neurtuko ditugu emaitzak, helburu espezifiko zehatzei esker alegia.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planaren azterketa-plana martxan jartzen den unetik egin behar da. Zentzu honetan, aurretiaz adierazgarri batzuk proposatzen ditugu, ondoren azterketaren planifikazioa egiteko.

Kontuan izan behar da adierazgarri batek neurtzen dituela egoerak denboran zehar egiten dituen aldaketak. Adierazgarri bat egokia izateko, honako ezaugarri hauek izan behar ditu: balioa izatea, fidagarritasuna, sentsibilitatea, ulergarritasuna eta eskuragarria izatea. Adierazgarriak Berdintasun Planaren kudeaketari laguntzeko oinarritzko tresnak dira, eta ez neurtzeko elementuak soilik.

## EKINTZAK

Aurreko helburuek eragiten dituzten ekintzak erabakitzeko bide hauek daude: galdetutako iturriek eskainitako informazioa eta aurreko diagnosian egindako elkarrizketak. Herriko egoerak eta eskura ditugun baliabideek baldintzatuko dituzte ekintza hauek. Horrez gain, aintzat hartuko ditugu Eusko Jaurlaritzak Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV Planean ezarritako ekintzak definitzeko arauak:

"Helburu bakarra lortzeko eratzen dituzten ekintzek logika bat dute, elkarren artean lotzen dituen logika. Hori gerta daiteke beraien artean jarraipen-harremana dutelako –elkarren laguntasuna behar dutelako- edota, esparru desberdinetatik eta tresna desberdinen bidez, emaitza berdina lortu nahi dutelako..." "Proposatutako ekintzak administrazioak esku hartzeko dituen tresnen arabera sailkatuta daude: ezagupena, sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa sortu; baliabideak eta zerbitzuak prestatu, sortu eta egokitu; arauak sortu eta moldatu; eta jarraipenerako tresnak moldatu".

## 7.2. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, ESKU-HARTZE EREMUAK ETA HELBURU OROKORRAK

ARDATZAK SAILAK	GENEROKO MAINSTREAMING-A	EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA SOZIOPOLITIKAN PARTE-HARTZEA	UZTARKETA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
1. SAILA: Tokiko Administrazioa	EM.1.1. Udalaren barruko kudeaketa hobetu, genero ikuspuntua txertatzeko.	EE. 1.1. Udaleko emakumeen egoera hobetu, politikarientz nahiz udal-langileena.	EC.1.1. Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko kultura hedatu Udaleko langile gizonen artean.	EV.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu, Udalean eta azpikontrataturako enpreetan.
2. SAILA: Kultura eta Kirola	--	EE.2.1. Emakumearen presentzia eta partaidetza sustatu Elorrioko kultura eta kirol esparruetan.	EC.2.1. Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko kultura hedatu herriko gizonen artean.	--
3. SAILA: Hezkuntza	EM.3.1. Ardurak partekatu eta emakumeen eta gizonen artean berdintasun harremanak erraztu herriko ikastetxe guztietan.	EE. 3.1. Emakumeek herriko hezkuntza-sisteman parte hartzea eta zuzendari-lanak egitea sustatu.	EC.3.1. Ikasleen artean etxeko lanak eta laguntasuna behar duten pertsonen zaintza partekatzea sustatu.	EV. 3.1. Hezkuntza-sisteman neskak, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu eta bitartekaritza bultzatu
4. SAILA: Osasuna	EM.4.1. Osasun Zerbitzuetan genero ikuspuntua bultzatu.	EE.4.1. Bereziki emakumeek izaten dituzten gaixotasunei hobeto aurre egin.	--	--
5. SAILA: Enplegua	EM. 5.1. Enplegu Zerbitzuan genero ikuspuntua bultzatu.	EE. 5.1. Elorrioko emakumeei lan egiteko aukerak erraztu, gizonen pare jarri.	EC.5.1. Gizartearen antolaketa eredu berria sustatu, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartuko dituenak	EV.5.1. Enpresak sentsibilizatu, sexu-jazarpenik gerta ez dadin
6. SAILA: Gizarteratzea	EM.6.1. Gizarte-ongizate Sailaren esku-hartzetan genero ikuspuntua bultzatu.	EE.6.1. Bereizkeria anizkoitza pairatu edota bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetu.	EC.6.1. Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen hobeto erantzuteko, baliabide soziokomunitarioak handitu eta hobetu.	EV.6.1. Indarkeriaren pairatzen duten emakumeen laguntza hobea eskaini.
7. SAILA: Hirigintza eta Ingurunea	--	EE.7.1. Hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean emakumeen partaidetza eta partekotasuna lortu, planifikazio, diseinu eta hobekuntza prozesu guztietan.	--	EV.7.1. Herriko emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa indartu.

### 7.3. HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

### 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.1.1.1. Elorrioko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako plana ezagutzera eman</b>	<b>EM 1.1.1.1.</b> Planaren edukia zabaldu herriko Agente Sozial guztien artean, enpresetan eta hiritarren artean. Horretarako hainbat tresna erabiliko ditugu: zabalkunderako liburuxkak, Udalaren web-orria, aldizkariak, etab.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Gizarte-ongizate Saila, Udaleko Sailak, Udaleko Erakundeak, Herri Komunikabideak	Elorrioko udal-langileen eta herritarren artean Berdintasunerako II. Planaren ezagutza
	<b>EM 1.1.1.2.</b> Udaleko teknikariei Planaren zati bat banatu, eurei dagozkien puntuak dituen zatia hain juxtu ere.		
<b>EM.1.1.2. Elorrioko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako plana bultzatu</b>	<b>EM 1.1.2.1.</b> Urteko Plan Operatiboak egin (UPO)	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Udaleko Sailak	Prestatutako Plan Operatiboak
	<b>EM.1.1.2.2.</b> Udalaren barruko koordinaziorako egiturak martxan jarri (Sailen arteko berdintasunerako Batzordea eta Berdintasunerako Foroa)	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Gizarte-ongizate Saila, Udaleko Sailak, Udaleko Erakundeak	Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea eta Berdintasunerako Foroa sortu eta martxan jarri
	<b>EM. 1.1.2.3.</b> Udalen arteko koordinaziorako egiturak martxan ipini (Berdintasunerako Udalaren barruko Batzordea)	Elorrio, Durango eta Abadiñoko Udaletako Berdintasunerako Zerbitzuak, Alkatetza, Durangaldeko Mankomunitatea	Berdintasunerako Herri barruko Batzordea sortu eta martxan jarri
	<b>EM.1.1.2.4.</b> BERDINSAREAn parte hartu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza	BERDINSAREAn parte hartu

## 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.1.1.3. Udalaren kudeaketa genero ikuspuntua txertatu</b>	<b>EM.1.1.3.1.</b> Udalaren sail bakoitzean genero ikuspuntua programetan edota jardueretan txertatzeko lan-taldeak eratu.	Berdintasunerako Zerbitzua	Genero ikuspuntua zenbat jardueretan txertatu da? Nolako ekintzak dira?
<b>EM.1.1.4. Udalaren informazio-sistematan datuak sexuka sailkatu (estatistikak, diagnosiak, ikerketak)</b>	<b>EM.1.1.4.1.</b> Udaleko sailen informazioa kudeatzeko sistema informatikoak egokitu, informazioa sexuka banatu ahal izateko eta komeni diren datu berriak sartzeko	Berdintasunerako Zerbitzua, Udaleko Sailak, Informatika Zerbitzua	Udaleko Sailletako sistema informatikoetan zenbat datu dago sexuka sailkatuta? Nolakoak dira?
	<b>EM.1.1.4.2.</b> Batutako datuen azterketa genero ikuspuntutik egin, Udaleko sail bakoitzean egiten diren programak eta esku-hartzeak hobetzeko.	Berdintasunerako Zerbitzua, Udaleko Sailak	Batutako datuen inguruan zenbat azterketa egin dira genero ikuspuntutik (datuak sexuka aztertuz)? Zenbat hobekuntza sortu eta jarri dira martxan? Nolakoak dira?
	<b>EM.1.1.4.3.</b> Informazioa kudeatzeko programa informatikoen diseinuaz arduratzen den enpresari programak egokitzeko eskatu, informazioa sexuka sailkatu ahal izateko	Berdintasunerako Zerbitzua, Informatika Zerbitzua	Zenbat egokitzapen egin dira Sailetan?

## 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.1.1.5. Udalak aukera-berdintasunaren aldeko politika garatzen duela bermatu, langileak kontratatzerakoan, trebatzerakoan eta promozionatzerakoan</b>	<b>EM.1.1.5.1.</b> Aldian-aldian Udalaren argitalpen guztiak, baldintza-pleguak eta lan-eskaintzak aztertu. Hizkera, aukeraketa eta kontratazio-irizpideak aztertu, berdintasun-printzipioa bermatzeko tresnak ezarriz	Berdintasunerako Zerbitzua, Idazkaritza	Zenbat kontratu-orrrik baloratzen dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua edota barruko kudeaketaren konpromisoa aukera berdintasunari buruzko gaietan?
	<b>EM.1.1.5.2.</b> Udalaren Trebakuntza-planean aukera berdintasunerako moduluak sartu, IVAPekin hitzarmena eginez		Aukera Berdintasunari buruzko zenbat modulu dago?
	<b>EM.1.1.5.3.</b> Oposizioetako gaien artean aukera berdintasunari buruzko gai bat behintzat sartu		Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaiak dituzten zenbat oposizio egongo ote da?
	<b>EM.1.1.5.4.</b> Udaleko langileak eta politikariak sentsibilizatu eta hezi Aukera Berdintasunari buruzko gaietan		Udaleko langileek zenbat ikastaro egin dituzte Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren inguruan?
	<b>EM.1.1.5.5.</b> Emakume gutxi dagoen lanpostuetarako inor kontratatu aurretik ekintza positiboak egin, lan horietan emakumeen presentzia handitzeko		Zenbat ekintza positibo egin dira? Nolakoak?

## 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Ardatza: Emakumeak			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE. 1.1.1. Udaleko emakume politikariek eta langileek lanpostua hobetzeko ze premia espezifiko duten ikusi.</b>	<b>EE.1.1.1.1.</b> Udaleko emakume politikariei eta langileei eztabaidataldea eratu eta galdera-sortak egin.	Berdintasunerako Zerbitzua, Idazkaritza	Zeintzuk premia daude? Nolakoak dira?
<b>EE.1.1.2. Gaitasun pertsonalak garatu, emakumeak ahalduztzeko, bai autonomia ekonomikoan bai erabakiak hartzerakoan.</b>	<b>EE.1.1.2.1.</b> Udaleko emakume langileei ikastaro eta jardunaldien berri eman, ahalduntzea errazteko.		Zeintzuk kompetentzia garatu dituzte? Nolakoak dira?
	<b>EE.1.1.2.2.</b> Udaleko langileentzat ikastaroak antolatu, euren ahalduntzeari buruzko gaiak aztertzeke.		Zein kompetentzia-maila lortu dute ahalduntzeari dagokionez?

## 1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA

Ardatza: uztarketa eta erantzukidetasuna			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EC.1.1.1. Udaleko gizon langileen artean ardurak partekatze eta jendea zaintzeko jarrerak sustatu.</b>	<b>EC.1.1.1.1.</b> Sentsibilizazio kanpaina bat egin barrura begira, gizonek etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko ardura partekatu dezaten.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Udaleko Sailak, Langileen Batzordea (Sindikatuak).	Udaleko gizonen eta emakumeen epe laburreko zenbat baimen eskatzen dituzte, laguntasuna behar duten pertsonak zaintzeko?  Gizonen eta emakumeen zenbat lanaldi-murrizketa eta eszedentzia eskatzen dituzte, laguntasuna behar duten pertsonen kargu egiteko?

Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV.1.1.1. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egin, Udalean eta azpikontratutako enpresetan.</b>	<b>EV.1.1.1.1.</b> Sexu-jazarpenari eta laneko sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloa sortu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Idazkaritza, Langileen Batzordea (Sindikatuak)	Zenbat alditan jartzen da martxan sexu-jazarpenari eta laneko sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloa?

## 2. SAILA 2: KULTURA ETA KIROLA

Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea eta Soziopolitikan Parte-hartzea			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE.2.1.1. Emakumeek herriaren historiari egin dioten ekarpena agerian utzi.</b>	<b>EE.2.1.1.1.</b> Ikerketa beka bat sortu, Elorrioko emakumeek herriari egin dioten ekarpen ekonomikoa, soziala eta kulturala argitara emateko.	Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila.	Egindako ikerketa.
<b>EE.2.1.2. Elorrioko eta bazter guztietako emakumeen sormen kulturala eta artistikoa bultzatu.</b>	<b>EE.2.1.2.1.</b> Herrian antolatzen diren jaialdietan eta kultur ekitaldi guztietan herriko emakume musikari eta artisten partaidetza sustatu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila.	Emakumeek egindako ekintza kulturalak eta artistikoak.
<b>EE.2.1.3. Herriko jaien prozesuan eta garapenean emakumeen partaidetza eta ordezkari-tza bermatu.</b>	<b>EE.2.1.3.1.</b> Emakume-elkarteak eta herriko beste erakunde batzuetako emakumeak Jai-batzordean parte hartzera gonbidatu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila.	Herriko jaiak antolatzen parte hartzen duten emakumeen eta emakume-elkarteen kopurua.
		Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila.	Emakumeek proposatu eta burututako ekitaldi kopurua eta ekitaldi mota.
<b>EE.2.1.4. Herriko eta bazter guztietako emakumeen presentzia, partizipazioa eta ekarpenak indartu.</b>	<b>EE.2.1.4.1.</b> Matxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) ospatu, Emakume-elkarteekin eta Herriko Erakundeekin.	Berdintasunerako Zerbitzua, Udaleko Sailak, Emakume Elkar-teak, Herriko Erakundeak, Berdintasunerako Foroa.	Antolatutako ekitaldi kopurua eta ekitaldi mota.

## 2. SAILA: KULTURA ETA KIROLA

### Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea eta Soziopolitikan Parte-hartzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>E.E.2.1.5. Kirol-klubetan eta federakuntzetan emakumeen presentzia eta partaidetza gehitu, bereizketa bertikala eta horizontala gutxitzeko</b>	<b>E.E.2.1.5.1.</b> Kirol-klubekin eta elkarteekin batera, erakunde hauetan gertatzen den bereizketa bertikala eta horizontala ezabatzeke estrategiak planifikatu	Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila, Kirol-elkarteak, Elorrioko kirol-klubak	Elorrioko emakumeek zein neurritan parte hartzen dute eta zein neurritan ageri dira kirol-erakundeetan?
<b>E.E.2.1.6. Elorriko emakumeen kirola sustatu</b>	<b>E.E.2.1.6.1.</b> Kirol-klubekin eta elkarteekin batera, Elorrioko emakumeek kirolean parte hartzen dutela argitara emateko estrategiak planifikatu	Berdintasunerako Zerbitzua, Kultura Saila, Kirol-elkarteak, Elorrioko kirol-klubak	Elorrioko emakumeek zein neurritan eta nola parte hartzen dute kirol-jardueretan?

### Ardatza: uztarketa eta erantzunkidetasuna

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EC.2.1.1. Gizonen artean pertsonak zaintzeko kultura sustatu.</b>	<b>EC.2.1.1.1.</b> Gizonentzako tailerrak antolatu, etxeko-lanak eta pertsonen zainketa partekatzeke.	Berdintasunerako Zerbitzua	Gizonek eta emakumeek etxeko lanen eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketa aurrean agertzen duten jarrera Emakumeen iritzia, etxeko lanak eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketa partekatzeke gizonek jarrerari buruz

### 3. SAILA: HEZKUNTZA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.3.1.1. Elorrioko Ikastetxeetako ikasleen Hezkuntza afektibo-sexuala bermatu.</b>	<b>EM.3.1.1.1.</b> Ikastetxeetan Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako hezkuntza afektibo-sexualerako programa eskaini.	Berritzegune, Elorrioko Ikastetxeak, Ikastetxeetako Orientabide-taldea, Berdintasunerako Zerbitzua.	Elorrioko gertatzen diren gogoz kontrako haurdunaldiak. Aurkeztutako programa kopurua eta mota.
	<b>EM.3.1.2. Elorrioko hezkuntza-agenteak trebatu, sexuaren zioz lan-orientabide okerrik eman ez dezaten.</b>	<b>EM.3.1.2.1.</b> Gai honi buruzko mintegi bat antolatu Elorrioko ikastetxeetako irakasle, zuzendari eta gurasoentzat.	Berritzegune, AMPAS, Elorrioko Ikastetxeak, Berdintasunerako Zerbitzua.
<b>EM.3.1.3. Hezkidetzak duen filosofia herri mailan hedatu.</b>	<b>EM.3.1.3.1.</b> Guraso-eskolak eskaintzen dituen prestakuntza-zikloetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko moduluak sartu.	Berritzegune, AMPAS, Elorrioko Ikastetxeak, Berdintasunerako Zerbitzua.	Elorrioko Ikastetxeetan ardurak partekatzearen inguruan egindako praktikak eta gai honetaz gurasoek duten ezaguera.
	<b>EM.3.1.3.2.</b> Elorrioko ikastetxeetako Guraso-elkarteei ardurak partekatzeari buruzko Jardunaldiak eskaini, genero ikuspuntutik.		
	<b>EM.3.1.3.3.</b> Ikasleen artean berdintasun-baloreak sustatzeko programa bat egin.	Ikastetxeak, Berdintasunerako Zerbitzua.	Elorrioko haurrek Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaz eta berdintasun-baloreez dituzten jarrerak.
	<b>EM.3.1.3.4.</b> Sexistak ez diren ipuin zerrenda bat egin eta zabaldu.	Kultura Saila, Euskara Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.	
	<b>EM.3.1.3.5.</b> Elorrioko haurrei sexistak ez diren ipuinak kontatu, jolasak egin eta ekitaldiak antolatu.	Kultura Saila, Euskara Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.	

### 3. SAILA: HEZKUNTZA

Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea eta Soziopolitikan Parte-hartzea			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE. 3.1.1. Ikasketak aukeratzekoan, neskek eta mutilek egiten dituzten aukeren artean dagoen aldea gutxitu; alde hori handiagoa den kasuei eta etorkizun hobea duten ikasketei lehentasuna emanaz.</b>	<b>EE.3.1.1.1.</b> Ikastetxeek eta guraso-elkarteek (AMPA) kontzientzia hartzeko kanpainak egitea.	Ikastetxeetako Orientabide-taldea, guraso-elkarteak (AMPA), Behargintza, Berdintasunerako Zerbitzua, Hezkuntza Saila.	Elorriko Ikastetxeetako ikasgai-adar bakoitzean dagoen neska eta mutil kopurua.

Ardatza: uztarketa eta erantzunkidetasuna			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EC.3.1.1. Elorriko Ikastetxeetako ikasleen artean etxeko lanak eta pertsonen zainketa partekatzea sustatu.</b>	<b>EC.3.1.1.1.</b> Ikastetxeetan kontzientzia hartzeko kanpainak egin.	Ikastetxeetako Orientabide-taldea, guraso-elkarteak (AMPA), Berdintasunerako Zerbitzua Hezkuntza Saila.	Elorriko neskatilek eta mutikoek ardurak partekatzeari buruz dituzten jarrerak.

### 3. SAILA: HEZKUNTZA

Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV. 3.1.1. Jarrera bortitzei eta sexistei aurrea hartu.</b>	<b>EV. 3.1.1.1.</b> Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan Emakunderen NAHIKO programa ezagutzera eman (programa hau genero-indarkeriari aurre egiteko ikasleentzat prestatutakoa da).	Ikastetxeak, guraso-elkarteak (AMPA), Berdintasunerako Zerbitzua.	Elorrioko neska-mutikoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz dituzten jarrera.
	<b>EV. 3.1.1.2.</b> Udalak ikastetxeei ematen dizkien laguntzetan, NAHIKO programan parte hartu duten ikastetxeei lehentasuna eman.		
	<b>EV. 3.1.1.3.</b> DBHn dabilzan gazteentzat tailerrak antolatu, jarrera bortitzei eta sexistei aurrea hartzeko.		
	<b>EV. 3.1.1.4.</b> Familiak jarrera bortitzei eta sexistei aurrea hartzeko moduluak sartu Guraso-eskoletan eskaintzen diren prestakuntza-zikloetan.		

## 4. SAILA: OSASUNA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.4.1.1. Elorriko emakumeen eta gizonen artean gaixotasunek dituzten eraginak ezagutu.</b>	<b>EM.4.1.1.1.</b> Elorriko emakumeen eta gizonen artean eragin handiena duten gaixotasunei buruzko datu-bilketa egin, genero ikuspuntutik aztertu eta Udalak egoera hobetzeko ekintzak proposatu.	Osasun-zentroa, Gizarte-laguntzailea, Berdintasunerako Zerbitzua.	Sexuka bildutako eta aztertutako datuetan oinarritutako txostenak, gaixotasunek emakumeen eta gizonen artean nolako eragina duten jakiteko. Horrez gain, udal mailan egin daitezkeen hobekuntza-proposamenak.

Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE.4.1.1. Emakumeen osasun mentala hobetu, ohitura osasungarriak sustatu.</b>	<b>EE.4.1.1.1.</b> Osasun mentala hobetzeko tailerrak egin (beti ere genero ikuspuntutik)	Osasun-zentroa, Gizarte-laguntzailea, Berdintasunerako Zerbitzua.	Osasun mentalekin zerikusia duten arazoak direla-eta, Elorriko Osasun-zentrora joaten den emakume kopurua.
<b>EE.4.1.2. Norberen burua zaintzeko eta beste pertsona batzuk zaintzeko ohiturak sustatu gizonen artean</b>	<b>EE.4.1.2.1.</b> Norberen burua zaintzeko eta beste pertsona batzuk zaintzeko tailerrak antolatu Elorriko gizonentzat (osasun fisikoa eta mentala aintzat harturik)	Osasun-zentroa, Gizarte-laguntzailea, Berdintasunerako Zerbitzua.	Osasun mentalekin edo pertsonen zainketa-zerikusia duten arazoak direla-eta, Elorriko Osasun-zentrora joaten den gizon kopurua.

## 5. SAILA: ENPLEGUA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
EM.5.1.1. Durangaldeko Mankomunitateko Behargintzako programetan genero-ikuspegiaren integrazioa bultzatu.	EM.5.1.1.1. Behargintzako programetan genero-ikuspuntua txertatzea laguntza-prozesua ezarri.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Behargintza.	Genero ikuspuntua txertatzen duten Behargintzako programak.
			Behargintzaren estatistika-txostenak, sexuka batutako eta aztertutako datuak dituztenak.
EM.5.1.2. Elorrioko produkzio-sektorea hobetzeko planak Udalak bultzatzea; Aukera Berdintasunaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzak 2005eko otsailean onartu zuen <i>Berdintasunerako Euskal Legearen</i> ildotik.	EM.5.1.2.1. Herriko enpresei begira, sentsibilizazio kanpainak sortu eta hedatu. Aukera berdintasunari buruzkoak, jakina.		Herriko enpresetan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako egin dituzten planak eta ekintzak (kopurua eta mota).
EM.5.1.3. Sexua kontuan izanik, sektore ekonomiko guztiei buruzko informazioa aztertuta izatea, arlo bakoitzean zenbat emakume eta gizon dabilen jakiteko (industrian eta zerbitzuetan batez ere, horiek baitira herriko sektore garrantzitsuenak).	EM.5.1.3.1. Errolda eta udaleko beste estatistika-iturri batzuk hobetu.	Sektore ekonomikoka sailkatutako txostenak, emakumeen eta gizonen partaidetza adierazten duten datuak sexuka dituztenak.	
	E.M.5.1.3.2. Udalarenak ez diren beste estatistika-iturri batzuetatik datuak jaso.		

## 5. SAILA: ENPLEGUA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
EE.5.1.1. Elorriko lehen sektorean eta bigarren sektorean emakumeen desoreka (kuantitatiboa eta kualitatiboa) gutxitu.	EE.5.1.1.1. Eskualdeko Udaletako berdintasunerako Sailekin, koordinazio sistema bat eratu, emakumeen lana hobetzeko proiektuetan.	Eskualdeko Udaletako Berdintasun, Alkatetza, Behargintza	Berdintasunerako Zerbitzuarekiko koordinazioa
			Elorriko emakumeen enplegu-tasa eta langabezia-tasa
EE.5.1.2. Elorriko emakumeak mobilizatu, autoenplegua sortzeko edota enpresa-ekimenak aurrera ateratzeko.	EE.5.1.2.1. Behargintzan emakumeen sormen-jarduera gainbegiratzeko eta sendotzeko zerbitzu bat sortu (zuzendaritza-prestakuntza, kudeaketarako tresnak, inbertsioa eta hazkundea bultzatu, eskualdeko emakume-enpresarien sareak, etab).	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Behargintza	Elorriko emakumeek sortu dituzten enpresak (kopurua eta mota)
			Elorriko zenbat emakumek jo du Behargintzara, enpresa bat sortzeko eman behar diren pausuei buruzko informazioa eskatzera?
EE.5.1.3. Emakumeak zuzendari-lanetara bultzatu, sektore publikoan zein pribatuan.	EE.5.1.3.1. Lanean ari diren herriko emakumeak buruzagi izan daitezen prestakuntza eskaini.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza	Elorriko sektore publikoan eta pribatuan zenbat emakume dabil zuzendari-lanetan?
EE.5.1.4. Lan-aukera berriak (edo aurrerantzean sor daitezkeenak) aurkitu, horiei buruzko informazioa eman eta sustatu –genero-bazterketaren ondorioz, orain arte emakumeei ukatu zaizkienak-.	EE.5.1.4.1. Emakumeek presentzia txikia duten lanbideetan kontratazio-programa espezifikokoak bultzatu eta sustatu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Behargintza	Elorriko emakumeek lan egiteko dituzten aukera errealek azterketa
			Enplegu-sailak lanerako prestakuntzari begira antolatzen dituen ikastaroak (kopurua eta mota)

## 5. SAILA: ENPLEGUA

Ardatza: uztarketa eta erantzukidetasuna			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EC.5.1.1. Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko elorriarrek dituzten premiak ezagutu.</b>	<b>EC.5.1.1.1.</b> Herriko enpresetan gai hauei buruzko ikerketa bat egin: bizitza pertsonala eta lana uztartzeari eta ardurak partekatzeari buruz; eta zerbitzu soziokomunitarioei eta horien inguruan hartutako neurriei buruz.	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza, Kultura Saila, Hezkuntza Saila.	Egindako azterketan antzeman diren premiak (kopurua eta mota).
<b>EC.5.1.2. Neskame lanean ari direnen eta laguntasuna behar duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen egoera hobetu.</b>	<b>EC.5.1.2.1.</b> Neskameen eta laguntasuna behar duten pertsonak zaintzen dituzten emakumeen egoerari buruzko azterketa egin (orain arte egindako ikerketetan oinarrituta edo datu-bilketa berria eginez).	Berdintasunerako Zerbitzua, Gizarte-laguntza, Behargintza.	Arlo honetan emakumeen egoeran gertatu diren hobekuntzak.
<b>EC.5.1.3. Etxeko lanetan eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketan, gizonak ardurak partekatzerantz bultzatu.</b>	<b>EC.5.1.3.1.</b> Etxeko lanetan eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketan, gizonak ardurak partekatu ditzaten kanpaina bat eratu.	Gizarte-ongizate Saila, Behargintza.	Gizonen eta emakumeen jokabidea, etxeko lanei eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketari dagokionez.
			Emakumeen iritzia, gizonak etxeko lanetan eta laguntasuna behar duten pertsonen zainketan ardurak partekatzeari buruz.

Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV.5.1.1. Elorriko enpresetan laneko sexu-jazarpenari aurrea hartu.</b>	<b>EV.5.1.1.1.</b> Laneko sexu-jazarpenari aurrea hartzeko eta horren aurrean behar bezala jokatzeko, protokoloak daudela azaldu eta horren garrantziaren berri eman	Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatetza eta Sindikatuak	Elorriko enpresetan sexu-jazarpenari aurrea hartzeko dagoen protokolo kopurua

## 6. SAILA: GIZARTERATZEA

Ardatza: Generoko Mainstreaming-a			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EM.6.1.1. Gizarte-ongizate Sailaren diagnosian, planifikazioan eta esku-hartzeetan genero ikuspuntua txertatu.</b>	<b>EM.6.1.1.1.</b> Gizarte-laguntzaren eta berdintasunerako zerbitzuaren artean jarraipen-sistema bat eratu, sail honetako diagnosian, planifikazioan eta esku-hartzeetan genero ikuspuntua txertatzeko.	Gizarte-laguntza, Berdintasunerako Zerbitzua.	Datu azterketak sexuka bereiztuta eskaintzen dituzten diagnosi, planifikazio eta esku-hartzeak

Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea eta Soziopolitikan Parte-hartzea			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE.6.1.1. Bakarrik bizi eta senideak euren kargura dituzten emakumeei eta gizarte-laguntzak hartzen dituztenei, etxebizitza-eskubidea bermatu.</b>	<b>EE.6.1.1.1.</b> Aurrerago eraikiko diren babes ofizialeko etxeen artean ehuneko honenbeste alokairu merkean eskaini, bakarrik bizi eta senideak euren kargura dituzten emakumeei, gizarte-laguntzak jasotzen dituztenei eta lan-murgilketa programa batean murgilduta dudenei.	Gizarte-laguntza, Hirigintza, Berdintasunerako Zerbitzua	Jasotako laguntzen kopurua eta mota
<b>EE.6.1.2. Bereizkeria anizkoitza pairatzen duten emakumeen, baztertzeko arriskuan dauden eta familian, lanean edo maila pertsonalean arazoak dituzten emakumeen baldintzak eta egoerak hobetu.</b>	<b>EE.6.1.2.1.</b> Elorriko emakumeentzat Arreta Psikologikorako eta Juridikorako Zerbitzuari eutsi eta komenigarria irudituz gero, zerbitzua handitu	Gizarte-laguntza, Berdintasunerako Zerbitzua	Arreta psikologikorako eta juridikorako zerbitzuan arreta jaso duten emakumeen kopurua

## 6. SAILA: GIZARTERATZEA

### Ardatza: uztarketa eta erantzukidetasuna

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EC.6.1.1.</b> Familia-kargak eta gizarte-laguntzak dituzten emakumeei lagundu, lanean has daitezen	<b>EC.6.1.1.1.</b> Gizartetik baztertzeko arriskua duten emakumeei, gizarte-laguntzak hartzen dituztenei eta lanean murgiltzeko programetan parte hartzeko konpromisoa dutenei, haurtzaindegiko gastuak ordaindu	Gizarte-laguntza, Berdintasunerako Zerbitzua	Gizarte-laguntza jasotzen duten emakumeak eta lanean hasi direnak

### Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV.6.1.1. Genero-indarkeria pairatu duten emakumeei laguntza hobea eskaini.</b>	<b>EV.6.1.1.1.</b> BERDINSAREAn era aktiboan parte hartu. Sare hau berdintasunerako eta emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarea da.	Udaltzaingoa, Gizarte-laguntza, Berdintasunerako Zerbitzua	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei hobeto laguntzeko harturiko neurrien eraginkortasuna.
	<b>EV.6.1.1.2.</b> Indarkeriaren biktimei laguntzeko prestakuntza ikastaroetan parte hartu. Ikastaro hauek IVAPek eskaintzen ditu eta EUDELen laguntasuna dute.		
	<b>EV.6.1.1.3.</b> Emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako esku-hartze protokolo bat diseinatu.	Berdintasunerako Zerbitzua, Udaltzaingoa, Gizarte-laguntza, Osasun-zentroa	
	<b>EV.6.1.1.4.</b> Urteko txosten bat egin, herriko genero-indarkeriaren egoera islatuko duena. Xede horrekin salaketei eta kontsultei buruzko datuak bilduko dira; Gizarte-zerbitzuetan, Udaltzaingoa, Osasun-zentroan eta Ertzaintzan.		

## 6. SAILA: GIZARTERATZEA

Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV.6.1.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa indartu.</b>	<b>EV.6.1.2.1.</b> Azaroaren 25a urtero ospatu (Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna). Emakumeen Elkarateak eta Herriko Erakundeek parte har dezatela.	Berdintasunerako Zerbitzua, Emakumeen Elkarateak, Ikastetxeak, Udaltzaingoa, Gizarte-laguntza eta herriko gainerako erakundeak.	Egindako salaketak (kopurua eta mota).
	<b>EV.6.1.2.2.</b> Emakumeen aurkako indarkeria kasuak sistematikoki salatu, bai Elorriion gertatzen direnak bai EAEn gertatzen direnak.	Berdintasunerako Zerbitzua, Udaltzaingoa, Komunikabideak, Gizarte-laguntza.	
<b>EV.6.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka gizonak ere inplikatu.</b>	<b>EV.6.1.3.1.</b> Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka dagoen gizon-taldea sortu.	Berdintasunerako Zerbitzua, herriko Erakundeak.	Elorrioko gizonak zenbateraino inplikatzen dira emakumeen aurkako indarkerian?

## 7. SAILA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Ardatza: Emakumeak Ahalduntzea eta Soziopolitikan Parte-hartzea			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EE.7.1.1. Herritarrek kontzientzia har dezatela, hirigintza arloan hartzen diren erabakiek emakumeen bizitzan duten garrantziaz eta hauen partaidetza erraztu Elorrioko hirigintzaren planifikazioan.</b>	<b>EE.7.1.1.1.</b> Emakumea Hirian Europako Gutunari zabalkundea eman.	Hirigintza Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.	Elorri hirigintzaren planifikazioan parte hartzen duten emakume eta gizon kopurua eta mota.
<b>EE.7.1.2. Elorrioko emakumeek gizarteari, kulturari eta historiari egin dioten ekarpena aitortu.</b>	<b>EE.7.1.2.1.</b> Kale, eraikin eta enparantza berriei emakume izenak jarri, herrian edo eskualdean berdintasuna eta garapena indartu duten emakumeen izenak.	Hirigintza Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.	Emakumeek Elorriori egin dioten ekarpena begi-bistan uzten duten ekintzak.

Ardatza: emakumeen aurkako indarkeria			
HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK	AZTERKETARAKO ADIERAZGARRIAK
<b>EV.7.1.1. Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetu.</b>	<b>EV.7.1.1.1.</b> Hirigintzaren ikuspuntutik emakumeen segurtasuna hobetzeko erak erakutsiko dituen mapa egin (horrez gain, emakumeen irisgarritasunaren eta mugikortasunaren berri ere eman beharko luke).	Hirigintza Saila, Berdintasunerako Zerbitzua	Elorrioko emakumeentzat seguruak eta irisgarriak izan ez eta hobetu dituzten tokiak (kopurua eta mota).



## 8. Kronograma

EKINTZAK		2007	2008	2009
1. SAILA: TOKIKO ADMINISTRAZIOA	EM.1.1.1.1.			
	EM.1.1.1.2.			
	EM.1.1.2.1.			
	EM.1.1.2.2.			
	EM.1.1.2.3.			
	EM.1.1.2.4.			
	EM.1.1.3.1.			
	EM.1.1.4.1.			
	EM.1.1.4.2.			
	EM.1.1.4.3.			
	EM.1.1.5.1.			
	EM.1.1.5.2.			
	EM.1.1.5.3.			
	EM.1.1.5.4.			
	EM.1.1.5.5.			
	EE.1.1.1.1.			
	EE.1.1.2.1.			
	EE.1.1.2.2.			
	EC.1.1.1.1.			
	EV.1.1.1.1.			
2. SAILA: KULTURA ETA KIROLAK	EE.2.1.1.1.			
	EE.2.1.2.1.			
	EE.2.1.3.1.			
	EE.2.1.4.1.			
	EE.2.1.5.1.			
	EE.2.1.6.1.			
	EC.2.1.1.1.			
3. SAILA: HEZKUNTZA	EM.3.1.1.1.			
	EM.3.1.2.1.			
	EM.3.1.3.1.			
	EM.3.1.3.2.			
	EM.3.1.3.4.			
	EM.3.1.3.5.			
	EE.3.1.1.1.			
	EC.3.1.1.1.			
	EV.3.1.1.1.			
	EV.3.1.1.2.			
	EV.3.1.1.3.			
	EV.3.1.1.4.			

5. SAILA: ENPLEGUA	EM.4.1.1.1.							
	EE.4.1.1.1.							
	EE.4.1.2.1.							
	EM.5.1.1.1.							
	EM.5.1.2.1.							
	EM.5.1.3.1.							
	EM.5.1.3.2.							
	EE.5.1.1.1.							
	EE.5.1.2.1.							
	EE.5.1.3.1.							
	EE.5.1.4.1.							
	EE.5.1.4.2.							
	EC.5.1.1.1.							
	EC.5.1.2.1.							
	EC.5.1.3.1.							
	EV.5.1.1.1.							
6. SAILA: GIZARTERATZEA	EM.6.1.1.1.							
	EE.6.1.1.1.							
	EE.6.1.2.1.							
	EC.6.1.1.1.							
	EV.6.1.1.1.							
	EV.6.1.1.2.							
	EV.6.1.1.3.							
	EV.6.1.1.4.							
	EV.6.1.1.5.							
	EV.6.1.2.1.							
	EV.6.1.2.2.							
	EV.6.1.3.1.							
7. SAILA: HIRIGINTZ AETA INGURUM ENA	EE.7.1.1.1.							
	EE.7.1.2.1.							
	EV.7.1.1.1.							